




ENRIQUE AZURZA ▶ KEA TALDEKO ZUZENDARIA

«XX. mendeko abesbatza musika zabaldu nahi dugu»

TOLOSA ▶ Kea
ahots taldeak
izen bereko
hirugarren lana
aurkeztu du

DISKOA ▶
Enrique Azurzak
zuzendu eta
Jon Santosek
diseinatu du ▶ 2



L. GARCIA

Euskal Herriko Sokatira Txapelketako saioa, bihar herriko pilotalekuan

ADUNA ▶ Goma gaineko 600 kiloko mailan lehiatuko dira zortzi talde, tartean eskualdeko Joxe Mari Agirre, Imanol Otermin, Lander Otermin eta Aitor Iparragirre tiratzaileak dauden Auzolan taldea ▶ 4-5

TOLOSALDEA ▶

Euskal presoen egoera salatzen grebara deitu du gaur Etxerategi ▶ 6



Olaberría Sei Orduetan. HITZA

IKAZTEGIETA ▶

Olaberría, Pistako Munduko Kopako azken proban

Manchesterren dago
scrach, jazarpen eta
puntuazio probetan
parte hartzeko ▶ 3



jantzi
hitza
ren
jertseak



ZATOZ GURE
DESKONTUAK
IKUSTERA

TOLOSA

Lizardi plaza, 2
ELOLA ALTZARIAK
Tel.: 943 65 29 01

DONOSTIA

Peña y Goñi, 16
Tel.: 943 32 03 58

Tolosa etorbidea, 19
Tel.: 943 31 27 84

Interesik gabeko finantziazioa
12 hilabetetarako

ENRIKE AZURZA ▶ KEA AHOTS TALDEKO ZUZENDARIA

«Azken mendeko abesbatza musika zabaltzea da gure helburua»

Kea ahots taldeak 'Kea' izeneko hirugarren lana aurkeztu du, «orijinala, pieza zailekin eta berriekin osatua»

IÑIGO TERRADILLOS

Enrique Azurzaren zuzendari-tzapean eta Jon Santosen mar-goekin Kea ahots taldeak lan berria aurkeztu du. Kea izene-ko liburu-disko hau kaleratzen duten hirugarren lana da, tal-dea sortu zenetik 10 urte igaro

direnean. Enrique Azurza zu-zendariak kontatu dizkigu dis-ko berriaren xehetasunak.

Nola definituko zenuke lan berria hitz gubitan?

Oso orijinala dela esango nuke. Azken mendeko abesbatza musikako piezak biltzen ditu, oso desberdinak elkarren ar-



N. LATABURU

KEA TALDEA ▶

1977. urteko ekainean sortu zen Kea ahots taldea, abesbatza musika zabaltzeko asmoz. Euskal Herrian ezaugarri hauek dituen talde bakarra da. Bere abeslariak musika arloko profesionalak dira, eta euskal abesbatza desberdinetan aritzen dira.

PARTAIDEAK

Sopranoak: Moira Zeberio, Miren Garikano eta M. Jesus Ugalde.

Kontratenoreak. David Azurza eta Omar Bartolome.

Kontraltoa. Arantxa Irazusta.
Tenoreak. Javier Alberdi, Aitor Imaz, Patxi Tardio eta Esteban Urzelai.

Baritonoak. Jesus Garcia Arejula eta Josu Lopez Soraluze.

Baxua. Xabier Sarasola.
Zuzendaria. Enrique Azurza.

Dena den zuzenean ere erakutsiko al dizue zuen musika?

Bai, badugu asmoa. Esaterako, irailean Miramonen abestuko dugu. Ondoren, Mexikora joango gara, eta han bira bati ekingo diogu.

Duela 10 urte eratu zuten Kea ahots taldea. Urte hauetan guztietan eginiko lana nola laburbilduko zenuke?

Musikari profesionalak gara taldea osatzen dugun kide guztiak, eta sortu genuenean argi genuen azken mendeko abesbatza musika zabaltzea zela gure helburua. Hala, egitarau orijinalak aurkeztu ditugu. 3 disko kaleratu ditugu eta pieza desberdinak eta berriak egiten saiatu gara.

tean, eta oso pieza landuak edo zailak. Antologia bat da, gehien gustatu zaizkigun piezekin osatua, bederatziguztira. Liburuari dagokionez, Jon Santosek diseinatu du, eta oso berezia da. 1.000 ale kaleratu ditugu guztira, eta guztiak dira desberdinak. Serie zenbakitua da.

Nolakoak dira aukeratu dituzuen pieza horiek?

Euskal Herriko obrei dagokionez, konposatzaile euskaldunen lau lan dira entzungai disko honetan: nire anai Daviden

bi pieza daude, Aita Donostia-ren pieza bat eta Jesus Mari Sagarren beste pieza bat. Euskal musikaz gain, Eskandinaviako, Suediako, Danimarkako eta Frantziako musika dago, eta baita nire Zaragozako (Espainia) lagun batek konposaturiko San Juan de la Cruzen pieza.

Nori dago zuzendua lan berri hau?

Musikari izan edo ez izan, edonork entzuteko modukoa da disko hau.

Diskoa jendaurrean da jada.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Gizonezko bat hil zuen ertzainaren kontrako zigorra berretsi dute

ETAren bahiketa zelakoan, 2003an hil zuen Alegian gizonzkoa

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Gorenak gaur berretsi egin du ETAren bahiketa zelakoan 2003an Alegian gizonzko bat hil zuen ertzainaren kontrako zigorra; hain zuzen, bi urteko kartzela zigorra eta lau urteko kargu-gabetzea. Gipuzkoako Auzitegiak iazko maiatzean zigor horixe jarri zion eta defentsak helegitea sartu zuen.

Hildakoa Jose Atanes zen,

43 urtekoa. Izatez Gudingoa zen (Ourense, Galizia), baina Beasaingo (Gipuzkoa) bizilaguna zen.

2003ko abenduaren 19an gertatu zen hilketa. R.B.D. ertzaina istripu bat seinalizatzen ari zen N-1 errepidean, Alegia parean. Susmagarriak iruditu zitzaizkion errepidearen beste aldean geldirik zeuden bi auto eta bertako bidaiariak, eta errepidea gurutzatu zuen. Bertara iritsi, Atanesi heldu,

«nahi gabe» tiro egin eta hil egin zuen. Ertzainak «ETAren bahiketa» gertatzen ari zela uste zuen, haren abokatua esan izan duenez, eta gertatutakoa ezin zela saihestu ere esan izan du.

Aipatutako zigorrez gain, hildakoaren neska-lagunari 120.000 euro ordaindu beharko dizkio, 15.000na euro Jose Atanesen gurasoei eta 6.000 euro ordaindu beharko dizkio bere anaiari.

TXOTX

Arratzain
Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 Usurbil

Oialume Zar
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi
Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Iparagirre
Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 Hernani

Urbitate
Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Gurutzeta
Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

Akelenea
Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

Lizeaga
Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

Elutxeta
Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta

Rezola
Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

Larre Gain
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

ALEGIA ▶



Tolosan odola ematen. HITZA

Odola emateko eguna gaur izango da osasun etxean

ERREDAKZIOA

Alegiko osasun etxean odol-ematea izango da gaur, 19:00etatik aurrera.

Beti bezala, odola eman ondoren mokadutxo bat emango zaie odol-emaleei han bertan. Ez da Alegikoa izan beharrik honetarako.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald:461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amarozko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ **Gurutze Gorria:** 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

- ▶ **Garraioak.**
 - ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
 - ▶ **Taxia:** 670420
 - ▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016
- ▶ **Besterik.**
 - ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

IKAZTEGIETA ▶ TXIRRINDULARITZA

Olaberria, Pistako Munduko Kopako azken probak egitera

Manchesterren dago asteazkenaz geroztik scrach-a, jazarpena eta puntuazio probetan parte hartzeko



Leire Olaberria, Euskadiko Sei Orduetan jasotako sariarekin. HITZA

NEREA URBIZU

Asteazkenean Loiuko aeroportutik Eustrak taldeko txirrindulariak Manchester aldera (Britainia Handia) abiatu ziren, bertan Pistako Munduko Kopako azken probak egiteko asmoz. Proba hauek gaur hasi eta igandera bitarte izango dira.

Honetan, besteen artean, Leire Olaberria ikaztegiatarra, Aitor Alonso eta Unai Elorriaga izango dira. Leire Olaberria jazarpena, puntuazioa eta scratch probatan ariko da eta Euskal Herrira astelehenean bueltatuko da.

Momentura arte 274 txirrindularik eman dute izena Manchester Velodrome pista aretoan egingo diren probetan parte

hartu ahal izateko. Txirrindulari hauek 36 selekzio nazionalakoak eta beste 10 pista taldekoak dira.

Manchesterko azken proben ondoren, Mallorkara (Herrialde Katalanak) joango da Olaberria hurrengo asteburuan, Espainiako Txapelketan parte hartzeko. Hauek Palma Arena belodromo berrian egingo di-

LORTUTAKOAK ▶

Hauek dira Leire Olaberriak aurtengo denboraldian lortu dituen emaitzak:

MUNDUKO KOPAKOAN Sydney (Australia). Scratch-en zazpigarren, puntuazioan hamaikagarren eta jazarpenean seigarren.
Mosku. 21., 24. eta 15.
Los Angeles (AEB). 10., 3. eta 12.

ESPAINIAKO KOPA Tafalla. Euskadiko selekzioarekin hartu zuen parte eta txapelduna izan zen.

EUSKADIKO SEI ORDUAK Donostia. Kanporaketan irabazle izan zen.

tuzte. Han bertan ere Munduko Kopako finalak jokatu dituzte txirrindulariek martxoaren bukaeran.

Euskadiko Sei Orduak

Donostiako Antonio Elorza belodromo berrian Euskadiko Sei Orduak egin ziren joan den larunbatean, eta Leire Olaberriak deusezteko proba eskuertu zuen, erraz, beste 11 lasterkariren aurka proba eginez. Hauetan eskualdeko beste hainbat emakumek hartu zuten parte: Ainhoa Pagola tolosarrak eta Udane Sarasola tolosako taldean dabilen Ana Usabiaga ordiziarra ere aritu zen.

Donostiako proba hauek jai giroan egin baziren ere, eskualdekoek erakutsi zuten pistako txirrindularitza ere indartsu dagoela.

iragarki laburrak ▶

LANA Garbiketa. Garbiketa, jantokitatarako sukaldia, eskolaz. 943 298232.
Gidaria. Gidaria, erakunde publikoetarako. 943 298232.

SALGAI Aulkitoxa. Urme bizkien koxea, Inglesina markakoa. 678 738745.
Autoa. Ford-Courier salgai (10 urte), IAT pasata eta aseguratuta. 626 625665.

IKAZTEGIETA ▶

Zirkulazio zerga ordaintzeko epea zabalik

Ikaztegiatan 2007. urteko zirkulazio zergari dagokion errolda onartu dute, eta honi dagozkien ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarriak izan dira. Ordaintzeko epea apirilaren 2ra arte dago irekita. Ordainketa banketxeetan nahiz udalerekin egin ahal izango dute. Helbideratuta dauden ordainagiriak 2007ko apirilaren 2an kobratuko dituzte.

BIDEGOIAN ▶


Internet bidez lanpostu bat lortzeko mintegia

Bidegoiangi KZgunean Lanpostu bat nola lortu mintegia izango da gaur: bi orduko iraupena izango du, 11:00etatik 13:00etara bitartean, alegia. Horrez gain, Ainara Muñoz tutorearen bisita ere izango da, goiz osoan zehar, 09:00etatik 13:00etara, hain zuzen.

TOLOSA ▶

Otoitzaldia antolatu dute bihar goizerako

«Garizuma behar den bezala bizitzeko», bihar 10:30etik 11:45era bitarte erretiro edo otoitzaldia antolatu dute Tolosako Santa Maria parrokiari. Euskaraz izango da eta adin guztiei zuzendurikoa. Berdina egingo dute martxoaren 3an, baina orduan, gaztelaz.



Salgai (Tolosa)
Iurrumendi auzoan etxe zoragarria. 2 solairu. 5 logela. Aparta. Sartzeko moduan. Lorategia. Garaje itxia. Arropa zabalteko lekua eta trastelekua.
Salgai (Anoeta) 78m2-ko pisua. 3 logela, sukalde galanta eta osatua. Kanpoalderra. Ikuspegi argia. Terraza ederra eta eguzkitua. Altzairuz hornitua. Sartzeko prest.
Salgai (Tolosa)
50m2. Atiko ederra alde zaharren erdian estreinatzeko guztiz eraberritu ostean. Kalitateko eraberritzea. Eskarata eta eskailerak eraberrituak.
Salgai (Tolosa) Agintari kalean 1. go pisua. 70m2. Estreinatzeko guztiz eraberritu ostean. Kalitate handiko materialekin egina.
Salgai (Ibarra)
90m2. Pisu zoragarria estreinatzeko guztiz eraberritu ostean. Kalitateko materialekin egina. Meste du bisitatzea.
943 69 71 96 • 675 705 268
Korreo Kalea 50

ADUNA ▶ KIROLAK

Euskal Herriko Sokatira Txapelketako saio bat jokatu dute bihar frontoian

Goma gaineko 600 kiloko mailan da neurketa eta 17:00etan hasiko da; zortzi taldek hartuko dute parte, tartean eskualdeko lau tiratzaile aritzen diren Auzolan

IMANOL GARCIA

Euskal Herriko Sokatira Txapelketako saio bat ikusteko aukera izango dute bihar Adunako frontoian, 17:00etan. Goma gaineko 600 kiloko mailan lehiatuko dira zortzi talde. Horietaiko bat Auzolaneko Auzolan taldea da eta bertan eskualdeko lau tiratzaile aritzen dira: Jose Mari Agirre, Aitor Iparagirre eta Imanol Otermin adunarrak eta Lander Otermin ibartarra.

Sailkapen fasean daude eta biharko bigarren saioa da. Guztira hiru saio dira eta hirugarrena martxoaren San izango da, Elizondoren Finala Aian izango da, martxoaren 10ean. Zortzi taldeetatik 6 sailkatzen dira finalerako. Auzolanek au-



Jose Mari Agirre, Imanol Otermin eta Aitor Iparagirre. I. GARCIA

trero saioan bogarren postua lortu zuen. «Gure helburua finalerako sailkatzea da», azaldu dute eskualdeko tiratzaileek. Beste taldeak Abadiño A

eta B (Bizkaia), Sokarri (Arriego), Kuartaro (Araba), Berriozar (Nafarroa), Amair (Nafarroa) eta Napurrai (Euzpeleta, Lapurdi) dira.

Adunako tiratzaileek sokatira egutegiaren kirolak dela dio. Taldea tiratzaile berrientzako zabalik dagoela ere adierazten dute. Txapelketako saioetako bat Adunako egiteko arrazoi, hain justu, zenbait tiratzaile bertakoak direlako izan da. Bendeiari saioa (Iustera) armatzen die tiratzaileek. Urtean hiru txapelketa jokatu dituzte Auzolan taldeek. Orain ari diren 600 kiloko eta 640 kiloko —zortzi tiratzailek parte hartzen dute bertan— eta 320/200 kiloko txapelketa —lau tiratzailek hartzen dute parte bakoitzean—. Indarrak baina gehiago elkar uertzeak, hau da, denak hiru batekin pentsatzea balo duela azaltzen dute txapelketan arriakastan.

ADUNA ▶

'Orinoco' obra Asvinenean, bihar 22:30ean

Ai pasar la barca antzerki taldeak *Orinoco* antzezina emango du bihar Asvinenean. Emaldiaren hasiera 22:30ean izango da.

ADUNA ▶

Sukaldaritza ikastaroa Txulobi elkarteak

Sukaldaritza ikastaroa antolatuko du Aizondo Zerbitzuen Mankomunitateak. 20 orduko iraupena du eta martxoaren San hasiko da. Larunbatetik izango da, 10:00etatik 12:00etara, Txulobi elkarteak. Izen-ematea Mankomunitateko bulegoan edo 943 693930 zenbakian.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Luz Ardidenera eski irteera martxoaren 17an

Villabonako eta Zizurkilgo udalak Luz Ardidenera eski irteera antolatu dute martxoaren 17rako. 1987 eta 1994 bitarteko urteetan jaiotakoentzat da eta 25 euro balio ditu. Izen-ematea goma martxoaren 9an amaitzen da. Izen-ematea Villabonako Gaste Informazio Bulegoan (943 69 44 98). Zizurkilgo Udala Bulegoan (943 69 24 95) edo Villabonako hezitzaileei deitur (665 72 05 25) egin daitezke.

MUSIKA ▶



Loatzoko 23 ikasle piano jaialdira

Erredakzioa ▶ Seisale elkarteak antolatuta, piano jaialdia egingo dute bihar eta etzi Andoainean. Zortzi eta hamahiru urte bitarteko ikasleek hartzen dute parte. Loatzo musika eskolatik gutzira 23 ikasle joango dira jaialdi horretara —argazkian 20 azalzen dira—. 14 Villabonatik, 2 Zizurkilatik, 3 Anoretatik, 2 Izurritatik, 1 Alegiatatik eta 1 Aizotzik. 1072

GIZARTEA ▶

Erraustegiak eskualdean izango duen eragina hizpide

ERREDAKZIOA

Ondolarrak erraustetaren aurkako plataformak hizaldia antolatu du, gaur, 17:30ean, Larraulgo Antton Amonarri kultur etxean. Gipuzkoako Erraustetaren Aurkako Koordinakundeko kideek emango dute hizaldia. Erraustegiak eskualdean izango duen eragina gaia jorratuko dute solasaldian. Ondolarrak plataformatik azaltzen dutenez, erraustegiaren kokagunetik 10 kilometroko ingurunean izango du eragina. Andoain, Zizurkil eta Adunako lurretara asko gerturatuko litzateke, beraz.

LIZARBI
Kutxa, mahai, sukai etab.
Alzarko Zurgintza enpresa
Lizarteko eta Alzarko herrietan.
San Esteban saso.
Tel. Fax: 943 88 00 10 / 943 88 00 10

uzturpe
Haur eskola
Luz Ardidenera
ikastola
Uzturpeko ikastola
Uzturpeko ikastola

Zure bizilagunak badu jada. Probatu nahi duzu?

Egin proba 3 hilabetez zure etxean

Telefoniarren Hileko kuota
+ Finkoetarako deiak 24 orduz
+ Banda Zabala 3 mega

1€ hil.

Eta, gainera, proba ezazu TB Digital Osoa, hilean beste 10€ bakarrik.

euskaltel
ZURETZAT

Eskatu informazioa saltokietan edo 1717 telefono-zenbakian.

*2009ko iraun arte, Euskaltel telefonoa egin duen aldea berriztatze baliabide du. Surtzerak, Surtzerak amari ondoren, produktua jantzi, kontsumitzailearen bidez, berriztatze baliabide du. Telefono berriztatzearen bidez, 24 orduz erabilgarri izango da. Erabilgarri izango den produktuaren berriztatze baliabide du. Erabilgarri izango den produktuaren berriztatze baliabide du. Erabilgarri izango den produktuaren berriztatze baliabide du. Erabilgarri izango den produktuaren berriztatze baliabide du.

Interkominak
575 bidezko Abstrak
zerbitzu berria

Nemina sartu erduko gure abstrak bidaliko.

www.kutxa.com

LIZARTZA ▶ POLITIKA

«Ni ez naiz zilegizko alkatea»

ETB1eko 'Galdezka' saioan Lizartzari buruz hitz egin zuen Joseba Egibarrek

ASIER IMAZ

Hasperen bat eta eskua gora jasotzea izan zen Joseba Egibarraren lehen erreakzioa, kazetariak Lizartzaz galdetu ziotenean. «Bi hilabete egon nintzen han eta porruazio ederrak ateratu nuen». Horrela hasi zen andoaindarra bere alkatezaren inguruko galderei erantzuten.

Asteazken gauean ETB1eko Galdezka saioan, Joseba Egibarrek, EAJko Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakari eta Lizartzako alkatea, EITBko 3 kazetariren galderak erantzun zituen. Ordu bete eskaseko tartean, Jon Jauregi jeltzalkidearen 5 etxeetat, bake prozesuaz eta EAJ barneko gatazken inguruan aritu zen hitz egiten gehien bat. Donostian bizi den andoaindarra Lizartzako alkatea ere badenez, kazetariak gai honen inguruan ere galdetu nahi izan zioten. «Porruazio ederrak» atera zituela esanaz hasi zen Joseba Egibar. Herrian bizitako giroaz, «parakaidista eta lapurtzat» jotzen omen zuten bertakoeak, horrela jakinarazi omen zioten kartel eta pintaduen bitartez. «Putrea eta lapurra» zela esanaz herritar batzuk joan ere joan omen zitzaizkion, berak putrea espezie

babestua zela erantzun eta «putreak kanpora» esatea ez zela oso zuzena erantzun omen zuen. Herritarrek orduan, «putreak mendira» jartzen zuten kartelak ateraz erantzun zioten.

Lizartzan zergatik alkate jarri zen galdetuta, berak herriaren borondatea errespetatua izatea nahi duela erantzun zuen: «Herritarrek erabaki dezatela» euren udaletxea. «Ni ez naiz alkate zilegia, Batasuna ilegalizaturik, PPkoak prest zeuden udal hauteskundetan Euskal Herriko udaletxe guztietan listak ateratzeko, eta 10 boto nahikoak izango zituzten Lizartzako Udalan talde guztia sartzeko. Gu hori ekiditeko joan ginen eta mixioa bete dugu.»

Azkenik hurrengo udal hauteskundetan, Ezker Abertzalea egotea nahi duela esan zuen.

Lizartzako Udalaren egoera

2003. urteko hauteskundetan, Axurdario herri plataformak 5 ordezkari lortu zituen, EAJ-EA koalizioak aldiz 2. Partiduen legea medio, herri plataforma ilegalizatua geratu zen eta ondorioz, Egibar buru zen taldea, ordezkari guztien jabe



Joseba Egibar, Lizartzako alkatea, prentsaurreko batean. HITZA

egin zen, espainiako legeak esaten zuena jarraituaz.

Axulario herri plataformak Egibari eskaera zuzena egin zion: lortutako 5 zinegotziak itzultzeko. Alkatea, beste herriren batean horrelakorik gertatzen bazen, plataforma ilegalizaturen bati zinegotziak itzultzen, Axurdario herri plataformak 5 ordezkari lortu zituen, EAJ-EA koalizioak aldiz 2. Partiduen legea medio, herri plataforma ilegalizatua geratu zen eta ondorioz, Egibar buru zen taldea, ordezkari guztien jabe

Euskadi Buru Batzarrek atzera bota zuen eta Egibarren erabakiaren baliogabetzea aurkeztu zion Espainiako Hauteskunde Batzordeari.

Gaur egun hiru zinegotzik kargua utzia dute, dimisioa aurkeztu alegia, lau geratzen direlarik. Axurdario herri plataformak salatu duenez, «herri plenoak irregulartasun handiz egiten dira, eta ez dakite Udalan edo beste lekuren batean egiten dituzten, erabakiak berri, udaletxe kanpoko paneletan ikusten dituzte».

IBARRA ▶

'Sua' filmaren grabaketa bihar Bermeon Erramunekin

A. IMAZ

Eneko Aritzaren Lagunak bihar Bermeoko Aita Guria baleontzian egingo dute hurrengo grabaketa. Bertan figurante bezala parte hartzeke jendea behar dute, arrantzale papera egiteko, hain zuzen ere. XVII. mendeko baleontzi baten itxura duen untxia da Aita Guria. Museo moduan daukate Bermeoko portuan, eta EALko kideek filmaren eszena bat grabatzeko lortu dute. Erramun Martikorena abeslaria ere eramango dutela jakinarazi dute antolatzaileek abesti «pare bat edo» kantatzeko.

Grabaketan parte hartzeko deialdi zabala luzatu dute. Bihar 09:00etan geratu dira Ibarra plaza. Bertara ezin azalduz gero, 12:00etan Bermeoko portuan edo plazan. Filman parte hartzeko jantziak beraiek eramango omen dituzte, baita bazkaria eta edaria ere. Arratsaldeko 16:30ean grabaketarekin amaitzea espero dutela ere jakinarazi dute Eneko Aritzaren Lagunak elkarte kideek. Animatzen denarentzat beraz, bihar 09:00tan.

POLITIKA ▶

Etxerateg gaur grebara deitu du

Eskualdeko herrietan deialdi ugari egin dira gaur eta biharko

A. IMAZ

Eskualdean ere gaur ordubeteke greba egitera deitu du Etxerateg «presoen eskubideen alde eta Iñaki De Juanaren

egoera salatzeko». Bestalde, bihar Bilbon egingo den manifestazio nazionala joateko deia ere zabaldu dute.

Tolosan 12:15ean udaletxe aurrean elkartzeko deia zabal-

du du Etxerateg, 13:15ak arte, ezker abertzaleak babestuta. Halaber, biharko manifestaziorako autobusa Triangulotik 15:00etan irtengo dela jakinarazi du, izena emateko Raku



Iñaki De Juanaren aldeko konzentrazio berriak egingo dira. HITZA

Tabernan jarri dituzte zerrendak.

Ibarran ere autobusa jarri dute Bilbora joateko. Izena ohiko lekuetan eman ahal izango da. Gaur grebara ere deitu dute Ibarra Etxerategetik, hauek Anbulategi aurrean elkartuko dira 12:00tatik aurrera.

Villabonan, grebarekin bat eginaz, 12:15ean Aiztondo Balarako manifestazioa egingo da herriko plazatik irtenda.

Anoetako ezker abertzaleak 12:00tatik 13:00etara greba egiteko deia zabaldu du. Bilbo-

ra autobusez joateko berriz, Itzuli tabernan eman beharko da izena.

Gaur, azken ostirala

Bestalde, azken ostirala izaki, 19:30ean konzentrazioak egingo dituzte ohiko herrietan presoen eskubideen alde. Iñaki De Juanaren egoeraren azken berriak bertan emango dira. Horretaz gain, eguerdiko greban parte hartze bezala, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren deialdia zabalduko dute.

hitza

Harpidedunen txokoa

h

Egin zaitetz harpidedun!

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzu zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beharpenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAREN harpidedun ordaintzaileek bakarrik eskuratu dute; deitu 902 82 02 01 telefono zenbakira

DENDA HAUEK HITZA-REN LAGUNTZAILEAK DIRA

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

San Francisco, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

Rondalea, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

korreua • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAREN harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

LEITZA ▶ KULTURA

Anari azkoitiarraren kontzertua izango da gaur Torrean

1997an lehenengo diskoa editatu zuenetik, beste hiru disko argitaratu ditu: 'Habiak', 'Amari ta Petit', 'Zebra'



Anari Alberdi. HITZA

ERREDAKZIOA

Anarik kontzertua eskainiko du gaur Torrean, gaueko hamabietan. Kontzertu honetan bere 4 diskoetako zenbait abesti eskainiko ditu.

Anarik 1997. urtean atera zuen bere lehenengo lana, *Anari* izenekoa, eta ordutik beste hiru disko plazaratu ditu: *Habiak* (2000. urtea), *Amari ta Petit* (2003. urtea) eta *Zebra* (2005. urtea).

Bakarleri honen lanaren erreferenteak aipatzeko orduan, Nick Cave, PJ Harvey, Walkabouts eta Kristin Hersh aipatu behar dira eta aldizkari berezietuek PJ Harvey euskalduna dela ere esan dute. Euskal Herriko kanpo ere bere lanek oihartzun handia izan dute.

Anari Alberdik ahotsa jar-tzeaz gain, pianoa eta gitarra ere jotzen ditu; Mikel Abregok bateria jotzen du, Drakek baxua eta Borjak, berriz, gitarra. Musikari hauek dira, beraz, Anari taldeko partaideak. Leitzan gaur gauean emango duten kontzertuaren ondoren, bihar Getarian izanen dira, eta martxoaren 3an, Lizarran.

LEITZA ▶

Bengoetxea VI.a eta Ruizen partida bihar

Bihar jokatu dute Bengoetxea VI.ak eta Ruizek finalurreko ligaxkako lehenengo norgehiagoka Labriten, Olai-zola I.a eta Belokiren aurka. Horretarako asteazkenean egin zuten material hautaketa. Larunbateko norgehiagokaren oihartzunak jende asko eraman zuen asteazkeneko material hautaketa ikustera, 200 bat lagun bildu baitziren bertan. Bengoetxea VI.ak eta Ruizek 103, 8, 103, 1 eta 105,3 gramotako pilotak aukeratu zituzten. Olai-zola I.ak eta Belokik, berriz, 104, 4, 103, 7 eta 105, 4 gramotakoak.

LEITZA ▶

Berto jaialdia 20:00etan, zineman

Gaur iluntzean egingo da azkenean bertso jaialdia, herriko zineman, 20:00etan. Leitzako bertso eskolak antolatu du Migel Mari Elosegik, Luze, eta Diego Riañok, Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalerdia baino lehen, oihartzun entseatzeko asmoarekin. Riañok martxoaren 3an parte hartuko du, Goizuetan, eta Elosegik 10ean, Berriozarren.

LEITZA ▶

'Un franco 14 pesetas' gaur zineman ikusgai

Gaur eta etzi *Un franco 14 pesetas* filma izanen da ikusgai herriko zineman, ohiko orduan. Carlos Iglesiasen zuzendutako film hau 1960. urtean dago kokatua. Orduan jende askok egin zuen bezala, Marcos eta Martin lan bila joango dira Suitzara.

LEITZA ▶ POLITIKA

Leitzaldeko ezker abertzaleak deituta ekitaldi politikoa egingen dute etzi, 12:00etan, zineman

Pernando Barrena eta Marian Zestau Amaiursarea ekimenaren inguruan mintzatuko dira

ERREDAKZIOA

Leitzaldeko ezker abertzaleak deituta ekitaldi politikoa egingen da etzi, eguerdiko 12:00etan, herriko zineman. Bertan Fernando Barrena eta Marian Zestau izanen dira.

Ekitaldia «gainditu» beharreko egoera bati erantzuna ematera dator, izan ere, ezker abertzalearen ustez, «prozesua hautsitzat eman nahi dute

batzuk, krisialdiaren ardura ezker abertzaleari leporatzen diotlarik. Egoera korapilatsu honetan, ezker abertzaleak prozesua aurrera eramateko determinazioa aldarrikatu nahi du, egingo krisialdia gainditzeko».

Ekitaldiaren lehenengo zatian «akordio politiko demokratikoaren» aldarrikapenaren inguruan ariko dira, «egungo egoera gainditzeko

garaia» dela azpimarratuz. Bigarren zatian, berriz, Fernando Barrena eta Marian Zestau Amaiursarea ekimenaren inguruan mintzatuko dira.

Azkenik, azken 30 urte hauetan gure eskualdean ezker abertzaleak jorratu dituen hainbat borroka gogora ekarriko dituzte: presoak, euskara, intsumisioa, ingurugiroa, ikurrina... Arlo bakoitza aipatu ondoren idazki bat irakurriko

dute horren inguruan, eskualdean arlo horren alde borroka egin dutenak oihartzara igotzen diren bitartean. Honetaz gain, hitzaldi osoan zehar argazki emanaldi bat eskainiko dute.

Zinemako ekitaldia amaitu ondoren Torrean bazkaria egingo dute, 14:30ean. Bazkaltzeko izena emateko epea oraindik irekita dago, baina gaur bertan amaitzen da.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Tel.: 943 65 56 95


ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko otsailaren 23a, ostirala ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA goizez  arratsaldez  beroena **13** hotzena **10**

BIHARKO EGURALDIA goizez  arratsaldez 

Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. Kudeatzailea. Jon Mujika. Publizitateak. 661 678818. tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
 Tolosa. 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldeko hitza.info. Villabona-Aitz. 687 410022. villabona-aitzondo@tolosaldeko hitza.info.
 Anoeta. 687 410022 anoeta@tolosaldeko hitza.info. Ibarra. 687 410032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
 Alegialdea. 687 410034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info. Leitzalde. 687 410118. leitzalde@tolosaldeko hitza.info.

udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Aikiza, Aitzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baiñarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Itaztegieta, Itura, Leaburu, Leizta, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia 

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA **902 82 02 01**
 (salantzak argitzeko, harpidedun egileko...)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Astelehenero helduentzako klaseak hasiko dira. Helburua lehen ikasitako gauzak gogoratzea eta bi ordu lagunarte on batean igarotzea da. Izen-ematea Udalebeko gizarte zerbitzuetan izango da eta HHIko telefono zenbakian: 943 672660.

Ibarra. Iñaki De Juanaren egoera salatzeko elkarretaratze ixila egingo da, 19:30ean, herriko sarreran.

Berrobi. Udalebeko Bulegoetan. 15:30 tik aurrera. Hilabete honetako podologo zerbitzua 26ean izango da. Ordua hartzeko 21a da azken eguna. 943 683294.

Tolosa. Iñaki De Juanaren egoera salatzeko elkarretaratzea egingo da Triangulo plazan, 19:30ean.

ZINEMA

Tolosa. Leidor aretoan, 22:30etik aurrera, *Banderas de nuestros padres* filma izango da ikusgai.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Elpuentea (lehen Carlos Puente de Ambrosio) artistaren pintura eta eskultura erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian. Jaiegun eta astelehenera izan ezik.

Tolosa. *Emakumeen aurkako indarkeriarik* ez erakusketa horma-irudien erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian otsailaren 24ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
Leizta. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Asteko onena*.
 21:00-22:00. *Igo bolumena*.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Araitz (Aitzo). Gaur urtebete. Gure bihurri bikiani bi muxu potolo, ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Amalur Beloki Tobar (Alegia). Muxu handi bat Garazi eta ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Martin Balda (Alegia). Zorionak etzeko hiruren partetik, eta ez ahaztu gaurko pastela.



URTE ASKOAN
Maialen eta Marian. Aitabxo eta Alaiaren partetik zorionak! Alkizako familia.



URTE ASKOAN
Iosu Azkue (Irura). Gaur 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



ZORIONAK
Eñaut Otegi Lasa (Alegia). Gaur bi urte. Zorionak eta muxu potolo bat ebekoen partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tartea



gure etxean
euskara
 gure etxean
berria

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoan baino %10 merkeago.
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat opariak: zozketak eta kupoiak astero, eta urte osoan erabiltzeko hainbat deskontu.
4. Promozioetan abantailak: BERRIAk ateratzen dituen liburusk, diskoak eta abar merkeago.

Orain eskaintza berezia

Otsailaren 28a baino lehen harpidetu* gero,

oparia zuretzat

2 LAGUNENTZAKO BAZKARI EDO AFARIA
 zuk aukeratzin duzun hauetako sagardotegi batean

GIPUZKOA LARRE GAIN ☎ 943 553 896 HERNANI	GIPUZKOA OTSUA-ENEA ☎ 943 956 894 HERNANI	BEIZKAIJA IBARRA ☎ 943 731 100 ZORIOKETA
ARABA ITURRIETA ☎ 945 445 385 ARABAKO	NAFARRA MARTITXONEA ☎ 948 604 607 ALDIZ	

Deitu ORAIN!! 943 30 43 45

* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du